EPALLA
21
Larunbata
Bilbao, 1936

EUZKADI

ARPIDE-SANEURIJA
Bilbao'kua ... ... 9,00 ifko. iru ile.
Bilbao'atazkua ... 11,25 " "
Idazki-itunmena ... 62,00 " urtez
Atzerijetakuak ... 112,50 " "

Beldayen itunduba

XXV urti || Idazkolea ta Banakolea: Correo, 17,1.º || 234 Idazkutxa || 17.810 Urrutizkiña || 7.251 zenbakija

Gayak

ZABALBIDE'N

Joseba Deunaren jayan be, Zabalbide'n aste erdiko jaya zan-aren pelota-zale asko ikusi genduzan. Iragarita egozan jokaldijak be pelota-zaliak Zazalbide'ratuteko lakoxiak ixan ziran.

Lenengo burukaldija, Sestao ta Etxebari'ren artekua ixan zan. Jokaldi au, etxebaritarak irabaziko ebela-ta gengozan, zortziñako bardiñalditik amasaspiñako bigarren bardiñaldirarte aurretik ibili ziranak be, eurak ixan ziran -eta.

Artamendi sestaotar atzelarija, baña jokuari eusten asi zan. Eta eskerak Artamendi'ri, nekezka baño ezpa-zan be, irabazi egin eben, 22-21 irabazi be. Alde gitxijaguatik ezin eukian irabazi.

Bigarren lekuban burukalekuratu ziranak, Gaminitz eta Bilbao'ko Euzko -Gastedija ixan ziran.

Oneik bana ta launa bardindu ziran.

Gaminiztarak jokolari trebiaguaren antza erakutsi eben. Euzko-Gastedikuak, ostera, zalaguena, jokuari zintzoki eutsijaz burukearen azkeneraño nekiak atzerantz eragin barik jaraitzen dakijenena. Batez be, Gorostiaga atzelarijak, azken bako burukari zalaren antza erakutsi euskun. Eta eskerak bere zintzotasunari, galduko ebela uste zan jokua, 15-22 irabazi eben.

Gaminiztarak, bai bata ta bai bestia, bilbaotarak baño pelotari artezijaguak dira, bata gogoraguak be. Baña asperteżezak, arin asperituten diranak. Txapeldun urten gura dauanak, bariz, eztau aspertu biar, eutsi ta eutsi baño. Euzko-Gastedi'kuak egin ebena orixe ixan zan: eutsi...

Galdakano ta Mundaka.—Ona emen beste jokaldi bakan bat.

Galdakanotarak pelotari ikasijaguak ziran, euren jokeraetan erakutsi eben. Mundakarren bixitasunaren aurka, baña, jokatzen jakite utsa etzan gauza. Mundakarak gogor asi ziran, atzeko ta aureko, bijak gogor. Batez be, baña, aurelarijaren pelotak, suikilutik urtetan diran berunpilak baxen indartsu urtetan ziran. Beraz, era aretara urtetan ziran pelotak ormaratuteko, pelotan ikasija ixatia baño geyago biar zan: Santzon'en indara, ta burdiñazko eskubak.

Ori ta gusti be, galdakanotarak, azkenen-alderantz egin eben aurerakadatxuba bide zala, 16 eskuraldira eldu ziran, jokua 16-22 galdu eben-eta. Mundakarak, Joseba Deunaren jayan jokatu eben gogortasunaz jokatuten ba -dabe, jokatu, zeregiñak emongo dabez. ¡Gogorak dira!

Mungia-Bermeo.—Azkenengo au, lenengo malakua dogu. Jokaldi au gogortxuba ixan zan. Bost aldiz bardindu ziran: iruna, launa, seña, zortziña ta ogetabana. Ogetabigarren eskuraldija, mungiarak irabazi eben.

Jokaldi onetako jokolaririk onenak, Bermeo'ko Ruiz-Etxebaria ta Mungia 'ko Lexona ixan ziran.

Mintegi mungiar aurelarijak, atara -aldiko sei eskuraldijetatik at, gauza aundirik ezeban egin. Lexona'k. ostera, atzetik, gogor eutsi eutsan eta burubaz jokatu.

Ruiz-Etxebaria'k, baña, jo ta jo egiten eutsan-eta, eten ez bestiak eragin eutsazan.

Bermeotar pelotari gaste trebe oni, lagun ixan eban Asla zintzuak apurtxu bat geitxubago legundu ixan ba 'leutso, eskuraldi batatik galdu ixan eban jokaldijari beste era bat emongo eutsan.

Asla aurelarija da ixan, baña Mintegi lako aurelari gogor baten onduan jokatzeko makaltxuegija.

Eta ori zala-ta, auretik jokatu biar ebana, atzetik jokatu eban.

Atzetik be, gogor jokatzeko, kirijuak biar dira, ta besuetan indara. Eta Asla zintzuari orixek gauza bijok uts -egiten eutsoen.

Utsune orek eta geyago bete ebazana, Ruiz-Etxebaria ixan zan. Bermeotar gaste au, pelotari trebia yatorku, ta ezek adoregetu barik burukeari azkeneraño eusten dakijana da.

Urengo burukea Etxebari'ko endore -idazkari bikotxagaz ixango dabe. Iturriaga ta Elorriaga, pelotari gogorak dira-ta, onei bijoi irabazteko peloteari gogor eraso biarko dautsoe bermeotarak.

Alkar ondo artzen dakijen "eri-alkate-sekretarijuai" pelota - auzijak-eta irabazteko, peloteari erasoten jakiñen ganera, "joko-tranpak" egiten be ondo jakin biar da. Gure erijetako endore batzuk sasi-abogadubak ixan oi-dira, ba. Eta eriko idazkarijaz buztari-lagun diranian, bariz, "sasi-abogadutzatik" urten eta aurerago juaten dira.

Beraz, itxaso zabalian arantzuan ibili baño beste auzitan ibili eztiran arantzalientzat, Udaletxietako sagutxubak diran endore-idazkarijaren aurka jokatu biar daben pelota-burukea, irabazi-gatxa ixango dana begi - aurian agirijan dagon egija da. Ori ta gusti be, baña, Ruiz-Etxebaria trebiak atze -aldia aldeztuteko aldezle on bat ba 'leuka, irabazi-gaztxat etsiten dogun auzi ori beste era bat emongo leuskijola esango geunke.

Alkar ondo artzen daben endore -idazkarijak atxituteko, latari trebia biar ixaten da, baña. Eta Ruiz-Etxebaria azkara aldeztuteko gai dan latari ori, ¿nun idoro...? Aldijak erantzungo dausku.

EUZKEREA BIXI DA

Euzkerea ondiño bixi da. Bixi ta bixiteko goguaz bixi be, Gorbea - txuntxuretik jatsita Bilbao'ko Udaletxeraño be eldu da-ta.

Bilbao'ko Udaletxian, Udaletxe ori egin ixan zanetik gaurarte, biarba, ber tan batzartuten ixan diran ziñegotzijen abuetatik euzkerarik iñok ezeban entzun ixango.

Zorijonez, baña, gauf, beste gauzarik esan geinke, Bilbao'ko Udalaren azkenengo Udal-batzarian areto aretako orma-gañoko gustijak gure abendeliaren oyartzuna entzun biara ixan eben-eta.

Bilbao'ko Udaletxera euzkerea lenengoz eruan ixan daben ziñegotzijak, Gorostiaga'tar Luki eta Abando'tar Jon ziñegotzijak ixan dira. Lenengua, Euzko - Ekintza'kua; bigarena, Euzko -Alderdi Jeltzale'kua.

Eta euzkerea, euzkotaron izkuntza bardibagia biztu ta jorituko ba-da, euzkotar oron euzkeltzaletasuna biar da: Urexola, Erkoreka, Garbizu ta enparauko euzko-abixendun gustijena, naizta euzko-abixendunoik beste eriketa batekuak ixan.

Euzkotar euzkelduna, erkaldara ixan leike; zozolistua be bai, bata "komunistia" ta "anarkistia" be gura ba-dau... Ezetara be ezin ixan letekena, baña; berak gura ta be ezin ixan letekena, beste au da: gaztelara, frantzetara, edo txiñara...

Euzko-abixendunak euren abixenetan daroyen euzkerearen aurka ibiltia, gixaki atzeratuben egiñena da, ezjakintasunaren ezaugaririk agirikuena.

Kale Iturino bat, esaterako, Bilbao 'ko Udaletxeko aulki arian ezetariko eskubide barik jezarita zala jakintsu -antzo euzkerearen irigari "la borona me hace daño" esaten ikustia, latari -janzkiz txorimalo jantziriko asto zara arantzaka ikustia lez ixan zan.

Jakintsu-antzo agertuten diran jakingeok gora-bera, baña, egija bere lekutik aldatu barik iraungo da. Euzkerea euzko-abixenetan bixiko da.

Euzkerea ezta ilgo. ¡Ez orixe!

Uribiarte'tar Ibon.

Kirolak

Zabalbide'n

Ona emen bijar Zabalbide'ko pelotatoki begikuan jokatuko diran txapelketa -jokaldi ikuskarijak:

Begoña-Balmaseda.
Lezama-Sabin-Etxia.
Erandio-Bekua ta Erandio-Goikua, eta Otxandiano-Mendexa.

Lenengo iru jokaldijak, bigarren malakuak ixango dira.

Azkenengua, ostera, lenengua.

Jokaldijon iragarija ederetan be edera da-ta bijar eurok ikusten igituko diran pelota-zaliakin, Zabalbide'ko pelotatokija beterik ikusiko da.

Batez be, lenengo malakua, ikusteko lakoxia ixango da. Otxandijotarak trebiak ba-dira, mendexarak be eztira edozein txorimalok atzerantz eragiteko lakuak.

Bijar ikusiko dogu.

Txirrikiz'en txilibitua

(AZKENA)

Aguria aldendu zaneko. Mikel, txilibitua joten asi zan. Bere bulareko arnasa gustijaz, putz eta putz joranez egiten eutson aren baña, tramankulutxu arek, berak uste eban lako ots-politik ezeban egiten. Oretarako alegin gustijak egin euzan aren, adarzararen zarata lakara baño besterik ezin ixan eutson eragin.

Ori ikusita, mutikuak, agin-artian ikaraz esan eban.

—¡Ze arano dok au...? Adarzar baten zarata lakara baño besterik etxok egiten ba-ta... Belarijak minduteko alagalakua dok... ¡Arek aguriak esan daustazak guzurzarak..! Oratik gauza ona ixateko asko palta yok berak...

Eta mormorka baten ibilita gero, bariro be txilibitua joten asi zan; iru mile txilibituren ots-miragarija entzungo ebalakuan ekin eban. Baña dana alperik. Barirokuan be adarzararen zarata lakara bakarik egiten eban.

Alako baten, oretan gogait egin eban. Eta, esku-artian erabilan tramankulotxua, ezetarako be etzala ixango-ta, erekara jaurtiteko asmua artu eban.

Gerotxuago baña, urari emona urak daruela-ta, bere txilibitua, Peli lagunari emotia erabagi eban.

—Ona emen Txirikiz agurezararen bezuz miragarija...—Peli'ri destañez esan eutson—. Eutso, euretzat...

—Ondo gauza polita dok ixan be—Pelik, txilibitua pozez artuaz erantzun eutson.

—Polita edo motza... or daukok ba eskuan. Baekik zelako adarzara dan.. Beriala putz egijok, eta jo egik bertan.

—Ez, oin ez; oretarako oin etxekuat astirik euki be. Onezkero etxian aparitarako itxaroten egongo dozak eta. Beraz, bijar edo ikusiko yuagu...

Eta, Peli, ori esanikuan arinka etxeko maira juan zan.

Bijaramon goxian, mutiko bijak, basora alkaregaz juan ziran. Peli'k, besperan Mikele'k emoniko txilibitua basora aldian eruan eban. Eta, mendi-txuntxurera eldu ziraneko, Peli, txilibitua jo ta jo asi zan. Orduan ¡aren soñuaren gozua! Entzun eben gustijari iru-mile txilibituren ots-gozua iruditu yakien.

Ori zala-ta, notin eta abere, soñua entzuten eben gustijak, dantza baten asi ziran. Mendijan larratuta egozan ganau-gorijak, landa-bedaretan alikatzen ziran ardi-zurijak, eta artxiliketan ikotika ebiltzazan auntz bizkorak eta abar, dantza baten ebiltzazala ikusi ebezan. Bata, mendi-egalian agiri zan basetxe-zuriko soluan egozan layarijak be, layak alde-batera jaurtinda gustijak batian dantzan asi ziran. Azkenerako, Mikel mutikua be dantzan asi zan.

xzfifillr xzfifillrf

Ango dantziaren dantzia, ta ango zaratia! Olako eromeri bat egundo ezan iñun egin.

Alako baten, luzaruetan joten ekinda gero, Pelik, naiko dantzarik ixango zala-ta, soñua ixildu egin eban.

Eta, soñua geratziaz batian, dantzan ebiltzazanak be geratu egin ziran. Eta neketuta egozalako, gustijak atsedena artzen jari ziran. Mikel, be, bere soña zelanbait atsendu gurarik Peli bere lagunaren ondotxuan jezari zan.

Olan zalarik, Mikel'eri txilika-mixilka bekaitz kaltegarija sortu yakon; egun atan ikusi eban gauza miragarija ikusita, bere lagunari txilibitua emona osuan damutu yakon. Eta baruan eban bekaitzak eraginda, emoniko gauziaz bariro jaubetuteko alegiñetan asi zan.

—I, Peli; ekak txilibitu ori—Mikel'ek negar-muskerijoz esan eutson.

—Ez eztuak emongo...—Pelik erantzun eutson.

—Bai emongo daustak; neuria dok eta...

—¡Iria...? Bai zereko iria...! Emona, emona dala ¿ez al-dakik...? Len ixango zuan iria, baña orain ezetara bez...

—Len be bai, ta oin be bai... Ori beti neuria... Eta neuria dalako, gura ta ez ontxe bertan emon biar daustak. Bestela...

Eta, ori esanda beste barik, arapaladan juanda, Peli'ri eskuetan eukon txilibitua kendu egin eutson. Peli'k orduan, zarataka asita, emona, emona zalata, kenduriko gauzia bariro emon egijola aren egin eutson. Esan gustijak alperik baña. Mikel, txilibitua besapian ebala, bere etxera "laugiñan" juan zan.

Orenbestegaz, Peli asaratu zan; eta asare be asare zala, bere lagunari "emona-kentzia,,'ren zemaya jaurtin eutson.

"Arek emon nai orek emon
emona, emona dok...
Emon eta kendu
sapuak bietzak kendu...

Gau atan, Mikel, txilibitu ta gusti pozaren ogeratu zan; bere lagunaren esan bilduragarijak arian be ezeban ikeratu; txilibitu miragarijaz bein jaubetu zan ezkero, txarik ez onik ezeban oldoztuten. Txirikiz'ek esanikuaz be bape etzan gomutetan.

vbg

Gabeko amabi-amabijetan baña, etxe aureko ari baten azpitik urteniko sapu andi batek Mikel'eri lotan egoala oñetako bietz nausijak jan eutsozan. Mikel, sapuaren aginkadeak iratzartuta negarez asi zan. Aren negarak eta aren uluak! Eta, anketako miñak zirala-ta, ganeko egun-gabetan be eten ba rik negar egiten eban. Eta, tantaka-tantaka negar-malkoz upa andi bat bete arte etzan geratu be egin.

Mutiko okef, eskeko aguriari ifi ta bare egin eutsolako, Jaungoikuak zijortu egin eban...

MAÑARIKO.

"Ergabia'ko Euzko-Batzokia"

Aizkeneko auteskunde ondorik beri onak ditugu EUZKADI'ren irakurlientzat beeri ontatik.

Orain-urengo igazko udan lenbizikoz Ergabia'n (Corella'n) izandu-giñanian, poz izan-gendun ango napar-abertzale banaka ayek ezagutzea, batez ere ayen buru egiten duen Peralta'tar Danel jeltzale itxu-porokatua. Beronekin euki-gendun elkar - izketa atsegin eta garantzitsuaren beri aldiz eman-genien gure euzkeldun irakurliei EUZKADI gure egunkari eder onen bidez.

Ordun atsegiñez adierazi genun beri -ona, egizturik ikusteko zoriona izan degu auteskunde-ondorengo egunetan beriz Ergabia'ko abertzale jatorren artean aurkitzeko aukera izan degunean: "¡Euzko-Batzoki edera ba'dute Ergabia 'ko abertzaleak!"

Corella'ko kale edo lekurik ikusgarienean, Peralta jaunaren etxean, egun abetako batean zabalduko-da "Ergabia 'ko Euzko-Batzokia".

Areto lasai ta ona, argia ta apaña, eri guziak euzko-ikuriña ederki ikusi -izango duen sapalu edo balkoi luzearekin. Eskaratza (cocina), zer-esanik ez: jatora au ere. ¿Zer nai-dazute geyago?

Bazkideak (socios) irurogei bat izanen dira oraikoz. Laister, eun eta geyago, gure aizkide ta idazkide yayoa den "Arkoyen" jaunaren iritziz.

¡Ederki!

Danel aundiak ba'ditu ordea beste laguntzale zintzoa zintzo batzuk ere. Ez dira, ba, ixilian ustekoak: Morales, Catalan eta Mendizabal, prakadunetan; eta Miren, "Azkoyen,,'en emazte ona, gonadunetan. Aspaldidanik guziok Batzoki oren zabalkunde-aldez egin-dituzten atef-gabeko dantzaen bidez zabaldu izango da, aurki, napar-uri ospetsu ontan aitaturiko Euzko-Batzoki edera.

* * *

Ergabia'ko abertzaletasunari - butzu bere euzkera utza entzuten zan emen; gauf baña, erderia para-para, euzkeria uruneko ele galdu ilun bat balitzan lez...

"Negarez igaro zan atsua,,'ren antzezki-notiñak onexek dira.

"Deadar'en Abotsa", Erepiso-Baranda'tar Alberta; "Eustaki", Ibazeta'tar Perderika; "Josene bere emaztia", Garitaonandia'tar Amparo; "Burintza euren seme gastia", Krutxaga gastetxuba; "Gorka seme nagusija", Erepiso-Baranda; "Miren-Bijotza onen emaztegaya", Aranburu'tar Jone; "Gergoritxu", Uriarte'tar Miren; "Simone", Uretxu 'tar Elixabete; "Dominike", Alkitza'tar Kandide; "Atsua", Zabala'tar Trinidad; mendigoxaliak eta erija.

"Buruzagijak" dauzan antzeznotiñak ara emen:

"Zaurieta'tar Domiñe", Zabala'tar Irune; "Beti - Lore", Aranburu'tar Jone; "Tbon Jauna", Alvarez'tar Dunixi; "Manain", Ibazeta'tar Perderika; "Urtsa", Erepiso'tar Alberta; "Azkanaro", Aranburu'tar Fulkantzi; "Korbiñen", Valdivieso'tar Kepa. Mendigoxaleak eta abesbatza.

¡Ondore andijena eukiko al-dabe gure antzezki neska-mutilak! ¡Agur!

G.'tar Kepa.

BERMEO

SABIN-IRUDIJA.—Deustotar Batzoki'ko abertzale batek eginda salgei dagon 3,75 eta 4,50 laurlekuen irakasliaren buriñezko irudi politak. Gure dabenak eros eskatu begi Muñoa'tar Peli Batzoki'ko kontzerkiari. Arin ibili.

JAYOTZA. — Lengo egunian ugutzau dabe Eupeme Deuneko zin - txadonean Urkidi'tar Kepa eta bere emazte dan Arien'dar Pimitibe'ren lenengo umetxuba. Jayoparitxu oneri Miren Itziar euzkel-ixen polita ezari dautse. Nere zorijonik beruenak artu.

ARANTZ ETA ONANTZ. — Ugalde'tar Joseba irakasle gastia emen ikusi dogu.

Uriarte'tar Gergori, "Itxastara" euzkel-idazle kementsuba, bere emazte gastiaren onduan egun batzuk igaroten erduta emen aguztu dogu.

Jaun onek lasterr urtengo dau itxasuak ziar atzerirantza. Ongi ibili.

Ortube'tar Kepa bulkindarira be untzija Bilbao'ko kayan lotu ondoren etxe ratu da.

Uriarte'tar Todor itxastar gastia be gure artian aurkitzen da egotalditxu bat lagunaren.

UNTZI BARIJA.—Arkotxa eta lagunaren untzitegitik itxasoratu dabe ixontziñotxu polit bat. "Ama-Miraritsua" euzkel-ixen polita eruan dau. Zorijonak eta arain asko koxu.

Urkidi

LAZKANO

DIOTE... — Erian lanikan gabe arkitzen diradenantzat erabaki pozgariak artu ditula gure udalak...

...Datoren ilean ospatuko diran udal -auteskundetan, Lazkau'ko abertzaleak kopora juan bear dutela, eriko kazikismoa bein da betirako oinperatzeko.

...Abertzaleengaitik esaten dituzten txakurkerietan susmatzen danez, Lazkau'ko karkatxok, tripetako miñ aundia artu dutela abertzaleak auteskundetan lortu degun gurenda aundiarekin.

...Arezkero "bagoi" bat "tila" edan dutela...

...Baña osakai ori gauza utsa dala, miñ ori latza dalako...

..."Eguzkia nora, zapiak ara" esaera zara, ondo betetzen dutenak ba daudela alderdi oretan...

...Oyetako batek, azkeneko auteskundetan ezkerari eman ziola bere autarkia...

...Eroritako zugatzarengandik ezpalak egitera eztala bidezkoa, eta... ixiltzeko.

Iramendi

Estebantxu

Estebantxu nor dan ba-dakixube: Primo'ren aldietan Bizkai'ko Aldunetxian beretzat artu eban kokolo-tzara. Txori eretxiñolak baxen argi txinta egiten dau gixon onek. Bilbao abixena dauko eta bera dagon tokijan, zeru osua daukola uste dau.

Estebantxu'k eleuke berbarik egin biar, baña lotsarik edo bururik eztaukenak legez edozer esan eta idatzi darua. Atzoko "El Pueblo Vasco" izpaingijan gai sakon bati ukutu eutsan: "Nacionalismo e internacionalismo". Gauza batek aritu ei-darua Estebantxu'ren buruba: sosolistoen eta abertzalien adizkidetasunak.

Gori gustijak, be, "Gora Euzkadi" oyuegiten ei-dabe. Eta Estebantxu'ren zementozko buruban eztateke sartu mirari ori. Barcelona'ko ibilkundietan entzun dauzan diadar gustijak "Viva Rusia" eta "Gora Euzkadi" ei-ziran. Baña "Viva España"rik ez.

Kokolo-mokolo galanta dogu Estebantxu. Ezkertar gorijak zegatik eztabe mate-ixango Euzkadi? Estebantxu'ren aberija bada, gorijena be bai. Eri bakotxean mueta ta mala askotariko semiak dagoz; gorijak, zurijak eta baltzak. Baña ama baten semiak dira: gustijak opaldu dagikijoe euren matasuna ama ori.

Zador edo misterijo oren sustrayak nun dagozan igari daikegu: eskumar buru-gogorak eztabe Euzkadi aintzakotzat, be, artu gura. Ezkertarak, ostera, geure Euzkadi'gana etori dira. Sari esan dogu, baña bariz diñogu: pozago goratuko geunkez eskumarak euzko-ixakerea aintzakotzat artuko ba'leukie. Geuretzat ixango litxaken pozkarija eskumaren abertzaletasuna! Baña euren gorotokerijak eta girin txarak bide diralarik, ezkabez ezetzat artzen. Euzkadi'ren aurka jagi oi-dira.

Estebantxu lango gixonak daukezan alderdijak galdubak dira geure euzko -lurean. Alderdi bi baño eztira ixango: euzko-aberi-zaliak eta atzeri-zaliak. Catalunya'n jazo dana, emen be jazoko yaku: gorijak edo zurijak, gustijak abertzale ixango dira. Atzeri-zale, be, gori ta zurijen artian ixango dira.

Campion'ek esan ebezanak, itz ederak dira. Baña Estebantxu'k eta antzekuak atiak zabaldu eutsoezan sosolismuari. Primo'ren aldietan euren kutuntxu eben oraingo negar-egin-aren.

Bigaren idazkija, be, emongo ei-dausku Estebantxu'k. Lenenguak baño gatz geyago ezpa-dauko, galdubak gara. Euzko-lagijetzaz idazten dausku gero, kokolo orek. Primo'ren aldietan euzko -lagirik ezeguan ala? Bizkai onegaz zer egin eban erantzun begiska

ERRIJETATIK

MUXIKA

JOSEBA DEUNA 'REN SASPI IGANDIAK. — Joseba Deunaren saspi igandiak dirala-ta notintza andija dabil jayeroko autortza ta Jaunartzak egiñaz Deunari dautsoen oneraspena erakusten dabela.

Doi Batza'ren Zaindari
Joseba Deuna,
Aren lortu, ba, gutzat..
Biar doguna.

KURUTZA TA LAUKI BARIJAK.—Gure Txaunburu jaunak bialdu dauskuzan kurutz-bide-lauki ederakin beste antz bat dau Ariatza'ko gure Elexatxu matiak (eskarikasko jaunori) eta jai-aratsaldietako "Kurtzietara", zar eta gaste, askuak eltzen dira. Kurutz -bide-abestijak, Erauzkin'dar Joseba Andoni ereslari azkararen eresijan abestuten dabez. txañeskiñuaren soñuagaz batera. Eresija oso atsegin yake entzule gustiei. Eta eresija-aituten dabenak oso egokija dala diñue. Beraz, zorijonak Erauzkin. ene aizkide ori.

Ariatza'ko gure Elexatxun lantzian gauza bategaz ija orniduaz dua. Jauna 'ri eskarak, Ariatza-matalíak bai-dira bate-batzuk, ixilian be... (emen doguzan gauza asko, eztakigu, ba, nok edo nortzuk egiñak diran) Urtzi'k jakingo dau. Eta Berak ordaindu bekijue euneko bereun obarigaz.

Gure Elexatxuau osuan orniduteko.. gauza baten paltan dogu... azpiko ol barija imintia biarekua dau. Au egiteko be, baña, don Bitor, gure lengo abade jaunak, emetik juango zan auretxuan esan euskunez... notin, persona batek (nor dan ezin esan leikela esan euskun Bitor jaunak) agintzaren bat egin eutsan... eta uste dogu, ba, don Bitor jaunari agintza egin eutsan jaun.. edo andereak... lentxuago-gerotxuago bete gurako dabela beren biotz onak, Ariatza'ri dautson matasunez egiñiko ezkintza... eta gure elexatxua azpiko ol barijagaz apaindurik jariko dala, jaun edo andera oren bidez. Olantxerik jazoko alda, eta ordez Urtzi'k zorun osodun egingo aldau.

BATZARA. — E. A. B. euren artu -emonetako Batzara, Batzokijan egin eben. Epala onen 15'an.

GEXORIK.—Zugadi'tar Miren andria, gexorik aurkitzen da. Alik ariñen osatutia opa dautsogu, ba.

DABILTZANAK.—Arospide eta Basabe'tar Jon osolari ospetsua, beren emazte ta alaba Miren Arantza neskatotxu bikañagaz batera, emen ixan dogu igazi dan igandian.

Zoragarizko Gotzon loretxu
Arospide'tar Arantza,
Zorun osodun ixango alda
Zu sortu ziñan baratza...
Zeure atatxon jayoterijak
Pozez dopaltzu bijotza;
Sari-saritan etorzadiz, ba,
Zorunez Muxika'rantza.

E.'tar K.

Uara. — Idazki au Joseba Deuna'ren aratsaldian artu zan.

BASAURI

ANTZERKI-JAYA. — Euzko-Gastedija'n sortu ta antzezki-gayetan diarduan "Antzerki-Zale" aldra begikuak, euzko-abertzale-antzezki jai eder bat ospatutia erabaki sendua erakutsi euskuben eta bai polita lortu be igalija eurek erein eben asijaz.

"Antzerki-Zale" aldrako neska-mutil ta gastetxubak gertu dagoz ¡bai bein! zeregin onetan gogor ekiteko. Badakije Aberirako gudarijak ekari gura ba -doguz lanian adorez egin biar dogula. Neke-barik. Eta gure abertzaletasuna ondorena zabalduteko itzaldijak, izpaingijak, idatzijak-eta egokijak dira, baña antzerki bidez, euzko-abertzale -antzerkiz egin leyen lan onuragarija bere ezta gero txarena, ezegokijena... Oregatik ba, Euzko-Gastedijan, ikusirik antzerkijak daukon garantzija, antzerki-aldez lan-dagijen, Batzorde edo "Comisiño" bat eratu eban. Batzorde onek kementasuna euken eta laster eraldu eban "Antzerki-Zale Aldrea". Aldra onek, bariz, "Negarez igaro zan atsua" ta "Buruzagijak" antzezkixun ederak autatu euzan bere lenengoz ospatuteko antzezki-jayan antzeztuteko.

Antzezkixun bijok irlandar abertzaliak idatzijak doguz, benetako abertzaliak ixan ziran irlandar begikuak egiñeko matxiñada ta egikadetatik atarijak, Sota'tar Imanol'ek erderaz idatzi ta Altuna'tar Joseba'k euzkeraldubak. Autzezkixun bi onein bijotza abertzaletasuna da, abertzaletasun zintzo, sendo, benetakua. Irlandaren abertzaletasun eder ta bixija guk, euzko-abertzaliok, antzartu edo "imitau" biar doguna da... Bata emetik urun barik euzkotarak erakutsi eben abertzaletasuna Padura'n, Otxandijo'n, Mungia'n eta abar a abertzaletasun gozua bere gar-ixan ba-geunke, beste gauza bat ixango litzake... Baña aberi -gogapena ondiño eldu barik dago. Lan asko egin biar da igali-elduba lortzeko... Au dalata, erakutsi eta irakatsi egin biar yako erijari. Daukaguzan bidietatik, bariz, ezta txarena antzerki bidia, len ezan dogun lez...

Gauf larunbata 21'an ospatuko da antzerki-jai eder bat emeko "Ciñian". "Negarez igaro zan atsua" eta "Buruzagijak" atal bateko antzerki gelgarijak antzeztuko dira. Erderaz da euzkeraz idatziriko antzerkijak dira, baña Basauri'n tamalez erderazko edez kerea emon biarian gagoz. Tamalez bai, punturarte, ointxurarte Basauri euzko-baseri bat baño ezan da... Oin-

Irakurri EUZKADI